

Errealismoaren eta surrealismoaren, kontzientziaren eta inkontzientziaren mugan dabil etengabe Valverde. Bere unibertso propioa eraikiz. Aske. Artista bera ere harritu egiten da bere lan batzuekin aurrez aurre jartzean. «Zer nahasketa dut buruan...! Horrela izango naiz», bota du barre artean.

Naturaren edertasunak tokia du bere arte-lanetan, baina baita gizakiaren eskuak ere. «Gizakiaren txikizioa ere agertzen dut», dio. Horren lekuko dira han-hemen txertatzen dituen industria pabilioiak edo paisaiaren erdian eraikitako porlanezko zubiak.

Lehen paisaia zabalek hartzen zituzten mihiseak, baina fokua gero eta gehiago zehatzuz joan da, naturako elementu zehatzei gertutik erreparatuz. Bistakoa da koloreak bere lanean izan duen bilakaera ere. Hasierako urdin eta berde biziak okre koloreei egin diete leku; Kantauriko itsasertzak Nafarroako Erriberari egin dio tarte.

Bere ibilbide luzearen nondik norakoa garbi islatzen du uztailearen 6a bitartean irekita dagoen erakusketak. Olio margoak, pastelak eta «kaxak» ikus daitezke.

Olioa da bere teknika nagusia. Margolari surrealisten teknika erabiltzen du planoak gainjarriz ezinezko paisaiak sortzeko. Margoa orraztuz.

Oloioz margotzean batzuetan sentitzen duen «loturak» esperimentazioari egin dio bide. Arnas luzeko artista izanik –«hilabeteak eta urteak eman ditzaket lan bat bukatu arte», dio–, gozatu egiten du bide berriak jorratuz. «Askatasuna ematen dit», aitortu du margolariak.

Bide berri horien emaitza dira kolorez betetako pastelak, zelulosaren gainean margotuz testura berezia hartzen dutenak. Pape-
rak berak trama oso markatua du eta efektu berezia egiten du. «Oso azkar, di-da egiten ditut. Eskertu egiten dut pintzelak eta margoak alboratzea», esan du.

Baita «kaxak» ere. Bere lanean presente dagoen umorea inoiz baino ageriagoa egiten da. Collage eskultorikoak dira. Irribarrea marrazten zaio aurpegian haiei begira jartzen denean.

Larralde eta xeko gela nagusian olioak ikus daitezke, eta, ondoko aretoan, gainontzeko teknikak erabiliz egindako lanak. Beiraren azpian egindako argizariak ere badaude horien artean.

2005etik hona egin dituen artelanak dauka ikusgai, gehienak 2008. urte ingurukoak. Labetik atera berria duen lan bat ere bada Senpereko erakusketan, etxean bertan duen estudioetik lehen aldiz atera dena. Oiarzunen bizi da aspalditik. Aiako Harriak ditu aurrez aurre.

Ez da hedabideon aurrean agerraldi publikoak egitearen zalea. Ezta bere obra erakutsi zalea ere. «Oso gaizki pasatzen dut. Biluztu egiten zara, nolabait. Baina gauza asko zuk bakarrik dakizkizu eta ez da beste inor horretaz ohartzen...», esan du, bere burua lasaitze aldera.

Arteak bizi du Valverde. «Margotzen ari naizenean ondo nago, aldiz, margotzen ari ez naizenean gaizki nago, nahastuta. Bakea ematen dit. Margotzeko aukera dudenean goizean jaiki eta eguna hasteko gogoia sentitzen dut», aitortu du.

Isabel Sagues Valverde iloba du alboan. Bidaide du azken urteotan, komisario lanak egiten. Osabaren sen artistikoa nabarmendu du. «Berezkoa du. Betidanik izan da margolaria eta beti izango da. Zintotasun handia du, den bezala bizi da: margotzen, artea egiten; hori da bere bizitza», adierazi du.

Modu inkontzientean margotzen du. «Hurrengo koadroak nolakoak izango diren? Auskalo...», esan du. «Nire lanaren garapena erabateko inkontzientziak bizi izan dit. Inoiz ez dut hurrengo lanean pentsatu»,



LARRALDEA, ATEAK IREKITA DITUEN KULTURGUNEA

Senpereko Amotz auzoan dago Larralde. XVII. mendearen hasierako (1615. urtea) dokumentuetan ageri da etxearen izena, beraz, XVI. menderako eraikia egongo zen.

Harri beltz eta grisez eraikita dago, dirudienez Amotz bertako harrobitik ateratakoak. Bertako estilo arkitektonikoari jarraikiz, aurrealdea asimetrikoa du. Adreilua eta egurra erabili zituzten lehen solairuaren gaineko aldean.

Andoni eta Marie Christine Iturriotzek 2000an erosi, guztiz eraberritu eta Senpereko «euskal kulturaren aterpe» bihurtu zuten. Ipar Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak bertan du egoitza eta herriko taldeek ere zabal-zabalik dituzte ateak. X.A.

esan zuen behin, eta bide beretik jarraitzen du. «Batzuetan arrastorik ez duzu, beste batzuetan hasterako baduzu ideien bat. Batzuetan dena zikindu egiten dut eta koadroak berak erakusten dit bidea; inkognita hori bera interesgarria da», adierazi du.

1981. urtean egin zuen lehen erakusketa. Ibilbide luzea izan arren, hasiberria sentitzen da Valverde. «Besteek ez dakit, baina nik behintzat behin ere ez nuke esango ailegatu naizenik nahi nuen tokira. Ezta pentsatu ere!», argitu du.

INDAREN ITSAS HONDOAK

Marian Inda (Pasai San Pedro, 1947) etengabe dabil itsasoaren bila. Hainbeste liluratzen duen itsas hondoren bila. «Hor ikusten du-



Marian Indaren argazki lanak, eta, ondoan, argazkilaria erakusketan.

